

HITZ BITAN

ATLETISMOA. Munduko Txapelketa Edmontonen

Gezahegne Abera etiopiarra nagusi maratoian, Biwottiri esprintean irabazi ondoren

Iñaki Gurrutxaga | DONOSTIA


Gezahegne Abera 23 urteko etiopiarra irabazi zuen atzo Edmontonen (Kanada) hasi berri den Munduko Txapelketako maratoi proba, Sydneyko Olinpiar Jokoetan eskuratutako urrezko domina berretsiz. Abera 2:12:42ko denbora behar izan zuen 42 kilometro eta 195 metroko ibilbidea osatzeko, bigarren sailkatu zen Simon Biwott kenyarrari esprintean irabazi ondoren. Stefano Baldini italiarrak lortu zuen brontzezko domina.

Atletismoaren historian sekula inork egin ez duena lortu du munduko txapeldun berriak garaipen horrekin: Olinpiar Jokoetan eta Munduko Txapelke-

tan maratoia irabaztea, alegia. Gainera, azken hamalau urteotan Europako korrikalariek proba honetan izan duten nagusitasuna apurtu zuen Aberak, garai-kurra Afrikara eramanez.

Lasterketa gogortu ibilbide erdian

Abdelkader El Muaziz marokotarra —Londresko maratoian irabazlea— 25. kilometro inguruan jo zuen eraso, eta lasterketaren erritmoa bizkortu. Ordurako, Kamel Ziani atleta oriotarra atzean gelditu zen. Baina Ziani ez zen izan El Muaziz marokoarraren eraso gogorren ondorioak sufritu zituen korrikalari bakarra; izan ere, jatorriz marokotarra den eta munduko marka duen Khalid Khan-



THOMAS KIENZLE/AP

Gezahegne Abera etiopiarra, urrezko domina eskuetan duela.

nouchi (2:05:42) estatubatuarra lasterketa bertan behera utzi behar izan zuen. Gauza bera egin zuen Gert Thys korrikalari hegoafrikar mitikoak.

Kilometroak aurrera joan

ahala, Abera eta Tole etiopearrak, Baldini italiarrak, Biwott keniarra eta Aburaya japoniarra osatzen zuten taldeak El Muaziz harrapatu zuen, eta azken kilometroetan Aberak eta

EGITARAUA

GAUR

23:45: Pisu jaurtiketako finala (E)

BIHAR

00:40: Mailu jaurtiketako finala (G)

01:35: 100 metroko finala (G)

22:30: Pertika jauziko finala (E)

Biwottek jotako erasoek argi utzi zuten garailea bi afrikarren artean aterako zela. Azken esprintean, Abera etiopiarra nagusitu zitzaion Biwotti.

Kamel Ziani, atzetik aurrera

Hogeita bederatzigarren postuan amaitu zuen Ziani oriotarra bere lehen txapelketa handia. Haren esanetan, beroak eta hezetasunak lasterketa «gogortu» zuten: «Helburua maratoia bukatzea zenez, nire erritmoan joan naiz, eta zenbait postu aurreratzea lortu dut». Lasterketa amaitu ondoren, ospitalera eraman behar izan zuten, deshidratazioagatik, eta lau litro suero jarri behar izan zizkioten bere onera etor zedin.

ESAIT. Bihar bukatuko da martxa Uztaritzen



KOLDO ALDUNTZIN

Esaiten Mendi Martxa Hazparden

Esaiten Mendi Martxako zazpigarren etapa egin zuten atzo ibiltariek, Hazparneraino. Izturizetik abiatu ziren goizean, eta Garralda mendira igo ostean, Gerezieta auzoko Ogeta baserrikoek eskainitako otorduarekin gozatu zuten parte-hartzaileek. Ondoren, euskal selekzioari buruzko bigarren hitzaldia izan zen. Mendi Martxa gaur amaituko da, eguerdiko ordubatean, Uztaritzen, eta bukaera ekitaldian antolatzaileak eta bertsolariak ariko dira.

SEGA

Gaur jokatu da Euskal Herriko Segatxo Txapelketako finala, Hernaniko Jauregi jatetxeko zelaian

Gaur eguerdiko 12:00etan izango da Euskal Herriko Segatxo txapelketako finala, Hernaniko Jauregi jatetxeko zelaian. Uztailaren 31n, Elorrioko Peruetxe baserriko belardietan izan ziren finalerdietan, Jon Lapazararen bizkaitarra eta Jesus Mari Ormaetxea, Joxe Ramon Aia eta Bixente Mitxelena gipuzkoarrak sailkatu ziren finalerako. Hasiera batean, Arrespalditzako (Araba) Ibagueneko zelaian jokatzekoa zen finala, baina azkenean Hernanin izatea erabaki dute antolatzaileek.

FUTBOLA

Alavesek 1-0 galdu zuen Sheffield Wednesday taldearen aurka, aurre denboraldiko partidari

Alavesek denboraldi-aurreko lehen partida galdu zuen atzo Ingalaterrako Sheffield Wednesday taldearen aurka. Gasteizko taldea ondo aritu zen lehen zatian, baina bigarren zatian jasotako golari ezin zioten bueltarik eman. Asteartean Bolton taldearen aurka jokatu du bigarrena.

FUTBOLA

Middlesbrough taldea izango da Athleticen aurkaria gaur jokatu duten partidari

Premier Leaguen aritzen den Middlesbrough taldea izango dute aurkari bilbotarrak, Ingalaterran egiten ari diren denboraldi-aurreko gaur jokatu duten partidari. Aurrez, beste bi partida jokatu ditu Athleticen, eta biak irabazi ditu. Bolton taldeari 0-1 irabazi zion azken partidari.

PIRAGUISMOA

Laugarren aldiz jarraian irabazi du Rafael Quevedok Sellako jaitsiera, Julio Martinezekin batera

Rafael Quevedo euskal herritarra eta Julio Martinez kantabriarra Sellako LXV. Nazioarteko Jaitsiera irabazi zuten atzo. Laugarren aldiz da bikote hori proba horretan garaile ateratzen dena, eta guztiak ere jarraian irabazi dituztenez, Sellako jaitsieraren historian sartu dira. Quevedo eta Martinez Munduko eta Europako txapeldunordeak dira, eta atzo, hemeretzi kilometro luze dituen ibilbidean, 21 estatutatik etorritako 1.227 palisten artean bere nagusitasuna erakutsi zuten.

ESANAK



JAVIER MIRANDA

(Osasunako lehendakaria)

«Aurten taldea lehenengo mailan finkatzea espero dugu, ez dugu iaz bezala sufritzen ibili nahi»

LUIS SCOLA

(Tauko jokalaria)

«Nire selekzioarekin lorturikoa beti izango da taldearekin lorturikoa baino garrantzitsuagoa»

PHILIP COCU

(Bartzelonako jokalaria)

«Bartzelona bezalako talde handi batentzat guztiz onartezina da bi urtez jarraian txapelketarik ez irabaztea»

